



## MEMORIA HISTORIKOA

### 'Ama, nora goaz?', azkeneko zita

Gaur, 19:30etan, *Ama, nora goaz?* dokumentala jarriko da Biterin. *Memoria Historikoa* berreskuratuz, 2017: *Andreen Iragan Bizia* jardunaldien bueltako azken zita izango da. ||

## HERNANI ERROTZEN

### Sariak, Doberan

*Ezagutu Hernani* lehiaketako sariak banatu zituen Hernani Errotzenek larunbatean, baina galderak ondo erantzundako batzuk ez ziren azaldu. Ondorengo galderak ondo erantzun zituztenek Doberan daukate saria: 1. *Nortzuk jaurti zuten udaletxea suntsitu zuen kañoi-kada? Karlitek*; 2. *Zer da Oriamendi? Mendi bat eta ereserkia*; 3. *Hernaniko zein kaleko zein etxeri esaten zaio Victor Hugo idazlearen etxea? Kale Nagusiko 45ari, Egino etxeari*. ||

## ELIZA

### Gaur eta bihar ere, penitentziak

Eguberrietarako prestaketa saioen barruan, elkarteko penitentzia ospakizunak antolatuta dira Hernaniko parroketan; gaur, 19:00etan, Floridako San Jose elizan izango da, eta bihar, 19:00etan, Ereñotzun. ||

## ZUMITZA TT

### Lizentziak eta informazioa, bihar

Zumitza T.T. txirrindularitza eta triatlói taldeak lizentziak berritu eta taldearen inguruko informazioa emateko zita jarri du bihar, 19:00etatik 20:00etara-ko tartean, Kide kafetegian. ||

## UDAL LIBURUTEGIA

### Komikigintza tailerra, umeei

Urtarilaren 4 eta 5ean komikigintza tailerra emango du Ainaara Azpiazu *Axpik*, 10-14 urte arteko umeentzat. Goizeko 11:00etatik 12:30etara, bi saio izango dira, eta izenematea irekita dago Udal Liburutegian; hantxe egingo dira bi saioak. ||

## UDALA PLENOA

# Aurrekontuak onartzeko Plenoa, gaur

2018 urterako Udal Aurrekontua aurkeztu eta bozkatuko dute gaur, 19:00etan udaletxean. Zuzenketak egin dizkiote EAJk, PSE-EEK eta Orain Hernanik, Gobernu Taldearen proposamenari.

EZOHIKO Plenoa izango da gaur, arratsaldeko 19:00etan hasita, Hernaniko udaletxean. 2018 urteko Udal Aurrekontua bozkatzeko osoko bilkura dute gaurkoa, udal taldeek.

Plenoko hirugarren puntua izango da hori, eta Gobernu Taldeak bere aurrekontu proposamena aurkeztuko du, eta

bertan bozkatuko dute. Behin behineko proposamena, azaroran aurkeztu zuen Udal Gobernu Taldeak, eta proposamen horri, zuzenketak aurkeztu dizkiote oposizioko alderdiek: osoko zuzenketa EAJk eta PSE-EEK, eta zuzenketa partzialak Orain Hernanik.

Udal Aurrekontuarekin ba-

tera, bozkatuko dituzte 2018 urterako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

### Beste lau puntu aztergai, gaurko Plenon

Hori ez da izango landuko duten puntu bakarra, gaurko Plenon. Beste lau gai ere eztabaidatuko dituzte udal taldeek.

Azaroko Plenoko akta onartzea izango da aurrenekoa, eta ondoren, abenduan emandako dekretuen berri emango dute. Jarraian, bi puntu: Eziagoko zuzkidura jarduketa baten xehetasun azterlana onartzea; eta Beterri-Buruntzako Elkarlan Sorguneen Programaren araudiaren hasierako onarpena. ||

## ATLETISMOA

# Anartz Artola nagusi, Ordiziako Krosean

Garaipena lortu zuen hernaniarrak, 20 urtez azpikoetan; eta 5garren izan zen Gorka Lopez de Arregi, 16 urtez azpikoetan. Bestalde, zabalik dago Wukroren aldeko San Silbestrerako izenematea.

EDERKI ari dira hernaniarrak, kros denboraldiaren hasiera honetan. Eta joan den asteburuan ere, erakutsi dute beraien maila, CD Hernaniko atletak, Ordiziako krosean emaitza ederrak lortuz, atzo.

Denetan nabarmenena, 20 urtez azpikoetan Anartz Artolak lortu zuen garaipena. Lasterketa bikaina egin zuen hernaniarrak, Oianguko zirkuitu aldapatsuan, hasieratik bukerara aurreneko postuetan ibilita, irabazteko lehian.

Azkenean, 20:42 denboran osatu zuen 5,5 kilometroko ibilbidea, eta 11 segundura helmugaratu zen bigarrena, Julen Teran. Assehli Youness izan zen hirugarren, 30 segundura.

Baina beste emaitza aipagarrikerik ere lortu zuten atleta hernaniar gazteek. Esaterako, bosgarren postuan sailkatu

zen Gorka Lopez de Arregi, 16 urtez azpikoetan.

### San Silbestreak, edizio berezia aurten

Eta ez da lokatza izango, baina atleta horietako batzuk ariko dira, zaur, Wukroren aldeko San Silbestrean ere, abenduaren 31n. Edizio berezia izango da aurtengoa, eta CD Hernanirekin batera, Gazte Asanblada ere ariko da antolaketan.

Arratsaldeko 17:30etan hasiko da 8 urtetik beherakoena (300 metro), 17:45etan 8-13 urte bitartekoena (800 metro), eta 18:00etan lasterketa nagusia (4 km), 14 urtetik gorakoena.

Azken horretarako, zabalik dago izenematea, 8 euroan, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean edota Ibaimendin. Beste bietarako, egunean bertan izango da izenematea. ||



Anartz Artola Oianguko helmugan sartzen, garalle.

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

Indiba Activ Zentro oliziala

INDIBA **activ**



[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087

**EGURALDIA**  
**GAUR** Goizean euri pixka bat egin lezake, baina zeruak garbitzera egingo du. Ipar-haizea izango da nagusi, eta temperatura hotza izango da. Min.5° / Max.9°  
**BIHAR** Egunaren hasieran lainoa sortuko da eta hotz egingo du, baina gainerako orduetan eguzkitsua egongo da. Tenperatura maximoa igo egingo da, pixka bat. Min.1° / Max.10° (euskaime)

## ■ SANTO TOMAS AZOKAK



Auzokide elkarteak antolatuta, igandean izan zen txistorra probatzeko aukera, Florida auzoan.

## Gabonak dastatzeko aukera, datozen txistorra jateetan

San Joan Konpartsak egin zuen aurreneko Santo Tomas azoka larunbatean, eta igandean segi zuten Floridan eta Zikuñagan. Gehiago ere izango dira.

OSTEGUNA izango da Santo Tomas eguna, baina Hernanin dagoeneko izan da txistorra probatzeko aukera. San Joan Konpartsak larunbatean jarri zuen postua, eta Zikuñagan eta Floridan igandean izan zen txistorra probatzeko aukera; azken hau, bertako bizilagun elkartearen, Auzokide elkartearen eskutik.

Datozen egunetan ere, herriko beste hainbat elkarte eta eskolek jarriko dituzte azokak eta postuak.

**Aukera gehiago, ostegunean** Ostegunean bertan egingo da txistorra jatea Goiz Eguzkin. Aurrena, 11:00etan, udazkeneko txapelketetako sari bana-

Inmauladan elkartean azoka jarriko dute Santo Tomas egunean, eta bildutako dirua misio proiektu baterako izango da.

keta egingo dute, eta segidan aterako dute jatekoa.

Inmakulada ikastetxean ere, elkartean azoka jarriko dute 10:30etan, ikasleek jarritako produktuekin. Txistorra ere izango da, noski, eta 12:00etan txerri txoa eta Gabonetako saskia zozketatuko dira. Bildutako dirua misio proiektu baterako izango dira.

Langile ikastolan bestalde, Laubidietan, txistorra jana egingo dute guraso eta ikasleek ostegun eguerdian, eta Elizatxo ikastolan ere azoka, erakusketa eta jatekoa ez dira faltako, eta txikienek Olentzeroren bisita jasoko dute, gainera. Berdin, Urumea ikastolan eta Ereñotzuko Txirrita ikastetxean. Azkenik, Gaztelekuetan, *halal* txistorra jarriko da 17:30etatik aurrera.

### Gibelalde auzo elkarteak, larunbatarekin

Herrian azken txistorra postua jarriko duena, Lizeagako Gibelalde auzo elkartea izango da. Larunbatean jarriko du postua, auzoan. ||

## ■ FUTBOLA

### Luis Llopisek, urteko bosgarren titulua Madrilekin

Hernanin ez bakarrik bertsotan, futbolean ere arrakasta lortzen dute herritarrek. Honela, Luis Llopis, Real Madrileko atezainen entrenatzaileak, urteko bosgarren titulua lortu berri du, klubaren arteko Mundialitza irabazi eta gero. Finalean, Brasilgo Gremio do Porto Alergren aurka 1-0 irabazi zuten. Hortaz, Liga, Championsa, Europako eta Espainiako Superkopak, eta orain, Mundialitza eskuratu ditu Llopisek. Ez da makala. ||



Luis Llopis entrenatzaile hernaniarra Zinedine Zidanekin, kopa eskuetan dutela.

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**JOSE MARI ZAPIAIN ARRESE**

Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.

**HERNANI BHI INSTITUTUKO GURASO, IKASLE, IRAKASLE ETA LANGILE EZ IRAKASLEAK**

Hernanin, 2017ko abenduaren 19an

**MARIA ROCIO CILLERO VAZQUEZ**

Besarkada handi bat, familiari

**HERNANI ERRUGBI ELKARTEKO ZURE LAGUNAK**

Hernanin, 2017ko abenduaren 19an

**XIX. URTEURRENA**

**Maritxu Pagola Ormazabal**

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

**ETXEKOAK**

Hernanin, 2017ko abenduaren 19an

**ESKERTZA**

**M<sup>a</sup> Victoria Garin Auzmendi**

Abenduaren 7an hil zen  
- Goian bego -

M<sup>a</sup> Victoriaren senarrak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaren guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**

Hernanin 2017ko abenduaren 19an

## IRAGARKI MERKEAK

Garaje itxia alokagai, 17 m2, Goldaraz kalean Correosen parean. Deitu: 687 841 817

**ETXEKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**Zorionak Maialen, txapelagatik!**